



**9/2021 TXOSTENA, MARTXOAREN 29KOA, KONTRATAZIO  
PUBLIKOAREN A HOLKU BATZORDEAREN BATZORDE  
IRAUNKORRARENA**

**XEDEA: DEKRETU-PROIEKTUA, HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL  
ERAKUNDEAREN EGITURA ORGANIKOA ETA EGINKIZUNAK  
EZARTZEN DITUENA.**

**I.- AURREKARIAK**

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7. artikulua Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari dagozkion funtzioei eta jardun-arloei buruzkoa da, eta artikulua 1. apartatuan funtzio eta arlo horien zerrenda bat jasotzen da (Irailaren 6ko 18/2020 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen).

Horren ondoren, honako hau xedatzen du aipatutako artikulua 2. apartatuak:

"2. – Sail honi atxikitzen zaizkio: Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa; «Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea / Instituto Vasco de la Administración Pública (IVAP)» administrazioako erakunde autonomoa; eta «Itelazpi SA» eta «Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte-Sociedad Informática del Gobierno Vasco SA (EJIE)» sozietate publikoak."

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak haxe dio azken xedapenetako lehenengoan: *"Sailburuek, Jaurlaritzari buruzko Legearen 26.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hala badagokio, lehendakariari aurkeztuko dizkiote, 2020ko abenduaren 31 baino lehen, bakoitzaren saileko erregelamendu organikoen proiektuak, onarpena eman diezaien. Sailei esleitutako jardun-arlo bakoitzarentzat Jaurlaritzaren programan jasotako helburuei eta programa hori argitu duten irizpideei egokituko zaizkie proiektuok.*



*Erregelamendu horiek antolaketa-irizpide hauek beteko dituzte: austeritatea, egiturak soiltzea, eduki zabaleko egiteko-arloak bateratzea, egiturazkoak ez diren staff egiteko-arloak identifikatzea eta informazioaren teknologiez ahalik gehien baliatzea".*

Aztertzen ari garen dekretu-proiektua Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak emandako hasiera-agindu batek bultzatzen duenez, gure iritziz ez dago eragozpenik hura Sailaren egitura organiko eta funtzionaletik bereizteko.

Dekretu-proiektuarekin batera aurkeztutako agirien arabera, funtsean, lehendik zegoen arauari (Dekretua) eutsiko zaio, baina IVAPek bere gain hartuko ditu euskararen terminologiari buruzko eginkizunak, eta, horretarako, zerbitzu espezializatu berri bat ezarriko da haren Euskara Zuzendariordetzan. Zerbitzu horrek bere gain hartuko ditu lehen Hizkuntza Politikaren eskumena zuen sailak eta Euskararen Aholku Batzordean zegoen Terminologia Batzordeak terminologiari buruz zituzten eginkizunak.

HAEEn Aholkularitzak egindako txosten juridikoak dio ez dela beharrezkoa Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostena, baina erakunde autonomo horrek ez duenez txosten horren eskaera egin, izapidetzea ekonomia- eta arau-kontrolaren izapidera iritsi da, eta horren ardura duen zerbitzuak uste du Batzorde horren txostena nahitaezkoa dela, eta, beraz, eskaera egin du, martxoaren 11n egin ere.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetutako espedientean (erreferentzia: DNCG\_DEC\_109401/20\_43), honako agiri hauek jasotzen dira:

- Agindua, 2020ko abenduaren 9koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen egitura eta eginkizunak arautzen dituen dekretuaren proiektua egiteko prozedurari hasiera ematen diona.



- Agindua, 2020ko abenduaren 16koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta eginkizunak arautzen dituen dekretu-proiektua aldez aurretik onartzen duena.
- Dekretu-proiektuaren testua.
- Dekretu Proiektuari buruzko memoria, HAEEko Hautaketa Zerbitzuaren Aholkularitza Juridikoarena.
- HAEEko Aholkularitza Juridikoaren txostena.

## II.- ESKUMENA

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eman behar du, nahitaez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoak (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua), 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz; Izan ere, xedapen orokorra da, eta, zati batean, kontratazio publikoaren eremuko alderdiei eragiten die, eta ondorioz, Gobernu Kontseiluari baitagokio hura onartzea.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egin du eskabidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 44. artikuluko 4. paragrafoak dioenaren arabera:

“Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, zuzenean edo proposamena egin duen sailaren edo erakundearen bitartez, bere eginkizuna betetzeko beharrezkoak diren txostenak, aholkularitza teknikoak, aurrekariak edo dokumentuak eskatu ahal izango dizkie egoki iritzitako instantzia guztiei.”

Bestetik, eta 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. apartatuko a) letraren arabera, egitura organikoak eta funtzionalak arautzeari dagokionez, Aholku Batzordeari dagokion aholkularitza-eginkizuna Batzorde Iraunkorrek beteko du.



Irismenari dagokionez, txosten honetan sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten dekretu-proiektuaren esparruak jasotzen dira soilik; izan ere, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honek kontratazio publikoaren gaineko eskumenak ditu bakarrik. Horiek horrela, honako hauek aztertuko dira:

### III.- KONTRATAZIOAREN ARLOAREKIN LOTUTAKO ESPARRUAK:

Ondoren, proiektuan jasotako esparru guztiak transkribatuko dira:

6. artikulua. Zuzendaria

[...]

2.- Zuzendariari dagokio:

[...]

e) Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren 111. artikuluan aipatzen diren aurrekontuak gauzatzeko eragiketak egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren Legeek gastua baimentzeari dagokionez xedatzen dutenaren kalterik gabe.

f) Kontratazio-organo gisa jardutea, erakunde autonomoari esleitutako eginkizunak eta arloak betetzeko beharrezkoak diren kontratazio-espeditenteei dagokienez, baldin eta ordenamendu juridikoak ez badie eskumena beste organo batzuei esleitzen.

[...]

9. artikulua.- Zerbitzu Orokorrak.

1. – Zerbitzu Orokorrak Koordinazio eta Kudeaketako idazkariaren mende egongo dira zuzenean, idazkariari eta institutuko gainerako zerbitzuei esleitutako eskumenak behar bezala betetzen laguntzeko unitate gisa.



2. – Beren helburua betetzeko, Zerbitzu Orokorrek honako eginkizun hauek izango dituzte:

[...]

b) Erakundearen baliabide ekonomikoak kudeatzea, bai eta aurrekontu-aurreproiektuaren prestaketa eta aurrekontu-gauzatzearen jarraipena koordinatzea ere.

[...]

d) Erakundeak sustatzen dituen kontratuak izapidetzea.

[...]

f) Erakundearen aholkularitza juridikoa gauzatzea.

[...]

Alde horretatik, eta Erakundearen tamaina eta kontratazio-bolumena kontuan hartuta, ez dago inolako oztoporik emandako testuan, ez eta haren funtsean edo edukian ere.

Azaldutakoagatik, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura organikoa eta eginkizunak ezartzen dituen dekretu-proiektuaren **ALDEKO TXOSTENA** ematen dugu.